

Hasiera Berriak
Berriak



Hasiera
Nor gara
Berriak
Argitalpenak
Harremana



kutxa

euskara | español

agendaren RSSa



Bilatu

2012ko Azaroak 28

Lizarrustiko Parketxea-Aralarko Parke Naturala

Azaroak 4, igandea: IBILALDI MAGIKOA ARALARREN

Datorren igandean, azaroak 4, Ataungo Lizarrusti Parketxetik abiatutako ibilaldi mitologikoaz goatzeko aukera eskainiko du Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak. Urtean zehar Fundazioak antolatzen diren jardueren barne, udazkenerako plana proposatzen du Parke Naturala eta bere inguruan gordetzen diren istorio eta kondairak ezagutzeko, euskaraz burutuko delarik ibilaldi gidatua. Ibilaldian Jentilbaratza Kultur Elkarteak izango da laguntzaile.

Ibilaldia goizeko 10.30an hasiko da Lizarrustiko Parketxean, eta Akerretaraino helduko da (Lareoko urtegia baino lehenago dagoen gunea). Bidean zehar mundu magiko batean murgilduko da bisitaria, Aralarko jeinuak lagun izango direlarik.

3 ordu inguruko iraupeneko jarduera izango da, non 4 km besterik ez dituen bide zirkularra burutuko den. Amaieran hamaiketako egiteko tartea izango da Akerretara iristean.

Salneurria:

-Helduak: 2,50 euro

-5-12 bitartekoak: 1 euro

-5 urte baino gutxiagokoak: Dohainik

Aurrez izena ematea gomendatzen da:

943 18 03 35 / 943 67 06 37

barandiaran@gipuzkoamendizmendi.net

Informazio gehiago: www.gipuzkoamendizmendi.net

-Ordua:

10.30

-Tokia:

Lizarrustiko Parketxea, Ataun



2012ko Urriak 30

Santiagomendiko Sagardo Bidea

"Santiagomendiko Sagardo Bidea"

Santiagomendiko ibilbideak, Euskal Herriko baserrientzako elikadura eta euskarri ekonomikoa izan den sagardoaren kultura ezagutu eta barmatzen laguntzen digu Astigarragako inguru honetan zehar, hauek gertaera kultural eta ekonomiko honen adibide paregabea izan baitira.

Ibilbideak zortzi geldialdi dauzka eta Santiagomendiko biztanleen harremana eta boterea, udaberrian Ternuara abiatzen ziren arrantza-ontzietan eta itsasoan sarbidea lortzeko garrantzia eta eskorbutoari aurre egiteko sagardoak zituen ezaugarriak bezalako gaiak lantzen dira.

Baita sagardoaren ekoizpenaren gorenko unea eta gainbehera ere, Astigarraren garapena eta kontzeptu berri baten sorrera, aisialdia, sagardoaren, bere ekoizpenaren eta herriaren kulturaren suspertzea eragin duena, gaur egun ingurunearen babesean eta identitate zeinu honek bizirik iraun dezan lanean ari dena.

Iraupena: 6 ordu

Erreserbak egiteko: <http://www.sagardoarenlurraldea.com/eus/zer-egin/esperientziak/zabaldu/?exp=27&fecha=>

-Tokia:

Astigarraga

-Informazio gehiago:

<http://www.sagardoarenlurraldea.com>



2012ko Urriak 26

Iturraran Parketxea - Pagoetako Parke Naturala

Udazkena Iturrarango Lorategi Botanikoan. Bisita gidatua azaroaren 3an

Lorategi Botanikoaren sortzailearen eskutik bisita gidatua

Nori Zuzendua: Publiko orokorrari

Iraupena: 2'30 h

Orduetgia: 11:00-13:30

Prezioa: Helduak 5€ eta 5-12 adin tarteko umeek 3,00 €